

Energia-pobreziaren aurkako borroka

## Euskadin 1.500 familia-etxe kalteberek baino gehiagok Gurutze Gorriaren babesa jaso zuten energia-pobreziaren aurka

- 400 familia inguruk tailerretan parte hartu zuten beren familia-etxeetako energia-efizientzia hobetzeko.
- Gurutze Gorriak artatutako pertsonen % 54k ez dakite zer den bonu sozial bat, eta % 90ek ez dute ezagutzen PVPC/KTBP tarifa arautua.

Pobreziaren beste alderdi bat da energia-pobrezia, eta modu intentsuagoan hartzen ditu eraginpean familia-etxe kalteberenak. Horixe da **Gurutze Gorriaren Gizarte Kalteberatasunari buruzko 17. Buletinaren** ondorio nagusietako bat, 'Kalteberatasuna etxebizitzaren eta energia-pobreziaren eremuari lotuta Gurutze Gorriak lagundutako biztanleengan' izeneko buletinean aurkeztutakoa, hain zuzen ere.

Gurutze Gorriak artatutako pertsonen % 60k inguruk oinarrizko gastuak –hala nola elikadura egoki bat eramatea– ordaintzearen edo beren familia-etxeak berotzearen artean aukeratu behar dute. Pertsonen % 77k onartzen duten zailtasunak dituztela hilabete-amaierara iristeko eta % 37k adierazten dute neguan 'hotzez izaten direla familia-etxean'.

'Gurutze Gorrian familia kalteberenei laguntzen diegu beren familia-etxeetako energia-kontsumoa egokitu ahal dezaten. Energia-efizientziako kitak ere ematen dizkiegu fakturan eta muturreko egoeretan aurreztu ahal dezaten, eta lagundu egiten diegu ordainagiriak ordaintzeko hornidura-eteteak saihesteko' Espainiako Gurutzeko Gorriko Prestakuntza eta Ingurumeneko zuzendari Pablo Navajok adierazten duenez.

Lan handia egin zuten Euskadin Gurutze Gorriko taldeek energia-pobreziaren aurka 1.557 familia-etxe kalteberari ( 922 Bizkaian, 420 Gipuzkoan eta 215 Araban) **uraren, argiaren edo gasaren ordainagiriak ordaintzeko laguntza ekonomikoak emanez, 400.000 euroko balioaz, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.**

Eskaeren gehiengoa 31-50 urte bitarte duten pertsonen aldetik iritsi da. Emandako diru-laguntza ekonomikoaren % 67,5a adin ertaineko pertsoneri zuzenduta egon da, honek, haurrak ardurapean dituzten familiek energia pobreziaren ondorioak askoz ere gehiago jasaten dutela islatzen du.

Beste behin ere, Euskal Autonomia Erkidegoan **389 familiek parte hartu zuten 2018an beren familia-etxeetako energia-efizientzia hobetzeko aholkularitza- eta informazio-tailerretan.** Esaterako, faktura aztertuz, kontratatutako potentzia doitu ahal izateko eta tarifa egokiena bilatzeko, edo gizarte-laguntzak edo bonu sozial elektrikoa eskatzeko informazioa emanez.

Osagarri gisa, Euskadiko Gurutze Gorriak **energia-efizientziako 80 kit eman zizkien doan familia kalteberei 2018an. Kontsumo txikiko bonbillak, ate eta leihoetarako burletak eta erregeleta elektrikoak daukate, besteak beste, kit horiek, eta elementu horiek guztiek bakoitzak bere etxean energiaren erabilera modu sinplean hobetzea ahalbidetzen dute.**

**Estatu mailan**, Gurutze Gorriak 18.000 familia-etxe kaltebera baino gehiagoei energia-pobreziaren aurkako babesa eskaini zien, 3 milioi euroko balioaz. Era berean, 6.000 familiek parte hartu zuten 2018an beren familia-etxeetako energia-efizientzia hobetzeko aholkularitza-eta informazio-tailerretan.

**Gurutze Gorriak pertsona kalteberenen egoerari buruz** egiten duen balorazioan **energia-premia bereziak dituen familia-etxe batean bizi ote diren identifikatzen da, adibidez, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak, elektrodependenteak edo haurtxoak.**

Jardun horren bidez zera atzematen da, **arriskutsuak izan daitezkeen edo efizientzia hobetzeko konponketak behar dituzten egoera txarrean dauden instalazio elektriko edo berokuntza-instalazioak ote dauzkaten.** Kasu larrietan, hainbat oinarriko elementu –hala nola egoera txarrean dauden ur-berogailuak, galdarak edo etxe-tresna elektrikoak– aldatzea edo, kasuan kasu, konpontzea ere balioesten da.

#### **Familia-etxe kalteberenak hartzen ditu eraginpean energia-pobreziak**

Gurutze Gorriak artatutako pertsonak eraginpean hartzen dituen energia-pobreziarekin lotutako **arazoa nagusiak** aztertzen ditu **[Gizarte-kalteberatasunari buruzko Gurutze Goriaren 17. buletinak](#)**: pertsona horien % 83,3 pobreziako eta gizarte-bazterkeriako arriskuan daude, % 65 baino gehiago emakumeak dira eta bertan haurrak, guraso bakarreko familiak, adinekoak edota desgaitasunen bat duten pertsonak bizi diren familia-etxeek indar handia dute. Inkesta egin duten pertsonen % 56k adierazi dute etxebizitza eta energia-pobreziako arazoez euren osasunean eragina dutela, adibidez arnas-gaixotasunak, erreumatismoa edo artrosia eraginez.

Ikerketak, era berean, pertsona kalteberentzat dauden baliabide eta tarifen erabilera- eta ezagutza-maila aztertzen du: % 19k soilik **erabiltzen dute bonu soziala eta % 54k adierazi dute ez dutela ezagutzen, eta KTBP tarifa erregulatuari dagokionez, % 3,5ek bakarrik erabiltzen dute eta % 90ek diote ez dutela ezagutzen.**

#### **Ediziorako oharrak:**

Deskargatu gizate-kalteberatasunari buruzko 17. zk. buletina (Etxebizitza eta Energia Pobrezia):

**[https://www.cruzroja.es/principal/documents/1789243/2038966/Informe\\_Cruz\\_Roja\\_Boletin\\_sobre\\_la\\_vulnerabilidad\\_social\\_N17\\_Vivienda\\_Pobreza\\_Energ%C3%A9tica.pdf/59045195-3960-d9a5-d632-7a92664df97a](https://www.cruzroja.es/principal/documents/1789243/2038966/Informe_Cruz_Roja_Boletin_sobre_la_vulnerabilidad_social_N17_Vivienda_Pobreza_Energ%C3%A9tica.pdf/59045195-3960-d9a5-d632-7a92664df97a)**

#### **IKUS-ENTZUNEZKO BALIABIDEAK – Gurutze Gorria Telebista [www.cruzroja.tv](http://www.cruzroja.tv)**

Etxebizitza eta Energia-pobreziari buruzko 17. zk. buletinaren bideoa (testigantzak eta datu nagusiak biltzen ditu): **<https://cruzroja.tv/video/10978>**

Álvaro García Serrano  
Komunikazio Arduraduna

Arabako Gurutze Gorria  
Tfn. 945 22 22 22 luzapena 8 | 678 40 14 43 | [comunicacionalava@cruzroja.es](mailto:comunicacionalava@cruzroja.es)